

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

104n. Zenbakia **Urtarrilla**  
1987



## **GUDAKO ZEREGINETAN**

(EZKERRETIK IRUGARRENA LAUAXETA)

### **LAUAXETA:**

- Olerkaria
- Izlaria

- Izparlaria
- Abertzalea  
(50n. urtea)

# ZER

## LAUAXETA'REN OMENEZ

Pozez eta itxaropenez asi dogu 1987n. urte au, poz eta itxaropen ori gure sendi, erri ta aberri-bizitzan urte guztian agertuko dala uste dogula.

Urte barri onetan, beste jazokizun gogoangarri askoren artean, Bizkaiko euskerearen aldelari garanok, idazle ta abertzale punterengoa dogun Lauaxeta'ren 50n.urte-urrena gogoratzen dogu.

Lauaxeta benetako abertzalea izan zan eta aberriaren alde ainbeste lan egin ondoren, Gazteiz'ko Elisabet Deu-naren Illerrian bere odola emon bear izan eban. Bere bizitzea eredugarri dogu euskaldunok, naizta bere antzera odola emotea guztioi egiten jakun eskaria izan ez, Jaungoikoari eskerrak.

Lauaxeta idazle ugaria ta ona izan genduan, batez be olerkarien artean eta lirika edo barru-miñaren saillean. Ugaria baita itz-lauz egin ebazan idaz-lanetan eta aberriaren alde egin ebazan berbaldietan.

Berrogei ta amargarren urte au ez dogu ba isillik igaro-bearrekoa.

ZER gure aldizkariak asieratik omenaldirako dei au egin gura dau eta orregaitik argitaratzen dogu Lauaxeta'ren omenez urtearen lenengo zenbaki au.

Igazko orrillean egin genduan Bizkaierearen astean egindako berbaldia da gaur argitaratzen doguna. Aita Luis Arostegi izan zan izlari eta Lauaxeta'ri buruz jakingarri asko sakonak eta argiak emon ebazan.

Gero zerbait geiago egiteko itxaropenaz eta urtearen asikerako omen lez agertzen dogu berbaldi au.

Izango ete da aurten Lauaxeta'ri illobi egoki bat gertatzeko urtea? Bere gorputza Gasteiz'tik Mungia'ra ekarri zan eta orretarako eskiñi zan baten illobian dago. Sasoia dala uste dogu gure abertzale ta idazle aundi oneri dagokion illobia eregiteko eta latinez, gerkeraz eta gaztelera idatzitako berben orde euskeraz dana bere illobi orretan agertzeko. Ba-dago orretarako eragozpen edo oztopo bat, erri onetako illobia tokiz aldatzeko dagoan ustea, baiña ori ta guzti be zerbait egin bear litzake berrogei ta amargarren urte onetan.

Gure idazle ta abertzale ospetsuak goratzen doguzanean, aberria bera goratzen dogu eta ondorengoai jarraibide agertu be bai. Goratu dagigun ba aurten gure Lauaxeta liriku aundia ta abertzale sutua, oraingo ta geroko euskaldunentzak eredugarri agertu daiten.

### IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ezarritako maikoak alkartu dira abenduaren 18'an euren epaia emoteko eta maiko guztien eritxiak batu-ondoren, auxe izan da artu daben erabagia:

1.º SARIA: 40.000 pezeta, IPUIN-ESKE lanari. Idazlea ONAINDIA'tar Santi.

2n. SARIA: 30.000 pezeta, NIRE GANBARAN AURKITUTAKOA lanari. Idazlea: PENADES'tar Josu.

3n. SARIA: 20.000 pezeta, LUKAS'EN ERAKUTSI ONA lanari. Idazlea: ERKIAGA'tar Eusebio.

4n. SARIA: 10.000 pezeta, GAUR TRINKATUA, BIAR IRAULTZAILLE lanari. Idazlea: LEJARTZA'tar Sebastian.

ZORIONAK!  
EUSKERAZALEAK

# LAUAXETA'REN OLERKIEN GIZATASUNA

## I. SARRERA

### 1. Azken urteotako bibliografia

Lauaxeta'k, gerra ondoko urte luzeetan ezezagun eta ixilpean izan ta gero, azken urteotan badau gora ta aipamenik. Antologia eta literatura kondairetan egiten zan bere aipamena eta agertzen ziran bere olerki batzuk (S. Onaindia'ren *Milla Euskal Olerki Eder* bildumak 19 olerki emon ebazan). Baiña gerra osteko belaualdiak ez eben aren garrantzia eurakanatzeko erarik izan. Gerra osteko idazleen artean, Mikel Zarate'k egin eban aren goramen bioztia (*Bizkaiko Euskal Idazleak*, Bilbo 1970). Errazoiz diño S. Onaindia'k 1974'garrean berak argitaratutako *Olerkiak* liburuaren bidez ezagutua izan zala geien bat (*Bide Barrijak*, Bilbo 1980: "Aurkez"; egile berak *Olerki guztiak*, Bilbo 1986, 34 or.). Izan be, gerra aurreko belaualdikoai egoken eta batez be lagun eta zuzpertzaille izan ebenai, olerkariaren izena eta izatea gerokoai eskuratzea.

Orain, ostera, pozik izan geintez burutzen diran lanakaz. A) Lauaxeta'ren lanen *argitalpenak*. 1980 garrean *Bide Barrijak* birrargitaratu eban S. Onaindia'k. J. Kortazar'ek *Azalpenak* (Bilbo 1982). J. Kortazar'ek eta Miren Billelabeitia'k *Olerkiak* (San Sebastian 1985). S. Onaindia'k *Olerki guztiak*. Onezaz ganera, Patxi Altuna'k argitaratuko ei ditu Loiola'ko artxiboan diran Lauaxeta'ren erderazko eta latinezko olerkiak (J. Kortazar, *Olerkiak* o.c, 355. or.). Aita Kortina ei dabil, bestalde, Lauaxeta'ren bizitza zeatza lantzen (*bertan*, 6. or.).

Azkenengo argitalpen bi oneetan, Lauaxeta'ren liburu biak (*Bide Barrijak*, Bilbo 1931, eta *Arrats-beran*, Bilbo 1935) eta aurkitu aal izan diran beste olerki guztiak agertzen dira, jatorrak eta Lauaxeta'k euskerara itzuliak: aldizkarietan azaldutakoak, kartzelakoak (1974 garreneko *Olerkiak* liburuan eta 1977 garrean *Gaiak* aldizkarian —Durango'n— emondakoak), eta besteren bat. Barri-barririk edo leen argitara bakorik ia ez dago: azkenengo argitara bakoa erderazko eta kartzelan idatzitako *El home bien barbado y bien amohinado* dogu, Kortazar'ek *Pamela* aldizkarian jakin-azo euskuna (hazila, 1985). Baiña guretzat ezezagunak ziranak ainbat agertu dira jatorren eta itzulitakoen artean. Nai ta alderdi ia barririk agertu ez, oneek be jakingarriak Lauaxeta'ren idaz-tankera eta olerki eziketara obeto ezagutzeko.

Argitalpen biok sarrera aberatsez orniduta datoz: bizitza zertzeladak (1974 garreneko *Olerkiak* liburuan

Zaitegi'k emonikoez ganerakoak asko ta asko), olerkariaren tankera, literatura ingurua ta meritua aztertuz. Onaindia'ren argitalpenak, bere oarkizunak eta geigarriak ezeze, batez be Lauaxeta'k bere liburu biei jarritako gaztelazko itzulpena dakar aurrez-aurre, askok esker onez artuko dabena. Kortazar eta Billelabeitia'ren argitalpenean, olerki bakotxaren amaieran komentario literarioa dator. Egoki deritxot bide oneri. Baita, alboan itzulpenik ez daukanez, oiñeko oarretan berba gitxiago ezagun edo bakanen esangurea argitzeari be.

Esker andia merezi dabe biak. Olan be, egilleak ez dabe argitalpen kritikorik egiteko asmurik izan. Eta ez daukagu olakorik, onezkero bear litzaken argitalpen kritikorik: au, batez be, Lauaxeta'k berak argitara ez ebazan olerkientzako. Baiña, gero, bietan aurkitzen doguz gura geinken baiño uts geiago. Zoritxar andia dogu au, olako aalegiña egin ostean, olerkariaren lanak zeatzago eta duiñago ez urtetea. L. Akesolo'k diñoanez, ain zuzen be gai berari buruz, "ez da errez gaur euskerazko liburuak inprentatik uts barik ateraten" (*Karmel*, 1961, 1, 81 or.). Baiña irakurte okerrak be egin dira, Akesolo'k bertan, Kortazar eta Billelabeitiaren argitalpenari buruz erakusten dauan lez (eta errez noberak egiztatu daiketan lez). Ganera, Kortazar Billelabeitia'ri "Ven, Señor" aaztu jake, eta Onaindia'k jator bi (*Biotzaren negarra* eta *Izar ituna*-Kortazar, 231-232 or.) ez ditu sartu, eta itzulpen bi (Carducci'ren *Idia* eta Verlaine'ren *Amets kutuna* -Kortazar, 233 eta 245 or.).

B. *Literatura ikerketak* be ugaritzen doaz azken urteotan. J. Kortazar'ek gai oneri emon dautso bere tesis lana\*. Lan onen frutuak dira leen aipaturiko *Olerkiak* liburuaren sarrera eta komentarioak; bardin, *Azalpenak* liburuari jarritako sarrera. Eta *Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak*, Jakin, 36 (1985) 79-98 or.; *Gerra aurreko giro literarioa*, Jakin 29 (1983), 6-15 or. Eta olerki batzuen ikerketa zabala: *Lauaxeta: "Zelaian" Poema*, "Euskeraren iker atalak", 2 (1983) 9-19 or.; *Lauaxeta-ren Artzain baten erijotzean*, "Euskeraren iker atalak", 2 (1983) 23-49 or. eta "Euskeraren iker atalak", 3 (1985), 223-227 or. B. Aretxabaleta: *Lauaxetaren Ondartza*, "Euskeraren iker atalak", 1 (1982); Gillermo Etxeberria-Iñaki Iñurrieta: *Euskal literatura. Textu azkerketak* (Bilbo 1985): "Mendigo-xaliarena", 135-141 or.

\* Onezkero argitaratua izan da: *Teoria y prdctica poetica de Lauaxeta*. Bilbao 1986.

## 50n. URTEA

Kortazar'ek, ganera, aparteko eraz Lauaxeta'ren iturriak, edo aurreko eta inguruko olerkariak onegan izan daben eragiña aztertu dau. Gaurkoz au da bere arlorik bereziena. Izan be, Aitzol'ek bere aldian esandakoak ezkerro, ia jorratu bako soloa izan da au. Kortazar sakon-zabal leiatsu danik ezin ukatu. Alan be, egiztatzeko leku egokia au izan ez arren, eragin larregi aurkitzen dauala pentsa lei. Bestalde, badakigu eragiña izateak ez daukala berez garrantzirik: arte eta olerkari guztietan aurkitu leitekez zelau edo alango eragiñak, literarioak nai bestelangoak; gure berbeta eta batez be gure irudi ta pentsa-mundua ezezetik ez dira inoz be sortzen eta, gizarte eta mundu eta kultura baten barruan baiño. Zer guzti orreekaz ezer barririk, bizikuntza ederrik sortu eta emoten dan dogu azken baten auzia, erlari, olerkari nai beste kreatuille guztietan. Lauaxeta'k be idatzi ebana: "Olerkiaren arima azaldu bear da, zelako artegatasunak darabiltzan edo olerki osoan poesirik dagoanik" (*Azalpenak, o.c.*, 137 or.).

### 2. Literatura ezagupena Lauaxeta'gan

Orain esandakoari lotuta jatorru gai au. Lauaxeta'k literatura eziketa ona izan eban, bere ikasketari esker eta gero bere irakurketen bidez. Zaitegi'ren zeatasunak jakuz emen lagungarri: Lauaxeta beste jesuita gazte mordo bategaz Loiola'n ikasle zala, 1924 garrenean euskalzaletu zan (1921 aldatua zan Durango'tik ara). Gazteok euskal bazkuna sortu eban, gero Oña'n eta Marneffe'n be jarraitu ebana. Apalategi'k irakatsi eutsen ondo euskal aditza. *Jesusen Biotzaren Deia* aldizkaria eukun euren euskal lanak azaltzeko. Orduan artu eban eladerazko eta latinezko klasikuak euskeratzeko erabagia, bakotzak bere egitekoa artuz. Ez dakigu Lauaxeta'rena zein izan zan. Eta nai ta erabagi onek geien baten porrot egin (Zaitegi'k jarraitu eban, dakigunez, eta Andima Ibiñagabeitiak be itzuli ebazan Birgili'ren Unai-kantak eta Alor-kantak), gazte taldearen euskal giroa eta kultura mailla erakusten dauskuz. Zaitegi zorrotzak ondo ezagutu ebezala diño Elade eta Erroma'ko idazle, olerkari ta izlariak. Errandoneak Kikero, Sofokel, Demostene, Tukidide irakatsi eutsezan, eta gero Shakespeare, Vieira brasildarra, Colombia eta Chile'ko izlariak. Estefania Aitak Bergili'ren Eneida, Orati, Ovidi, Tibul, Propertzi. Eta erderazko elertia, inglesa, frantzeza, italiarra, alemana, portugesa, katalanera. "Olerkari bakoitzaren lanak irakurten zizkigun ugari". Erdal izlariak, Luis de Granada, Luis de Leon eta abar Nocedal'enganaiño Juanjo Goikoetxea'k. Ikusten da bearbada izlariak azpimarratzen zirala, eta, bestalde, izkuntza guztiotako idazleak ezin eitekezan askorik sakondu; baiña interesgarria dogu olerki jatorrak irakurritz emondako irakasketa

ori. Idazleok geien baten leengoak izan arren, ikuspegi zabala artzen eban ikasleak irakurte zuzen orren bidez.

Oña'n egoala, frantzes olerkariak atsegin andiz irakurten ebazala daki G. Garate'k (Argia, 1981, ekaiña, 14, 23 or.: orain *Olerkiguztiak*, 507; ikusi bertan orduko literatura texto klasikuak be egarriz irakurten ebazala).

Izkuntza klasikoez ganera, Europa'ko izkuntza nagusiak be irakurteko lain ikasi ebazala difiosku bere ikaskide izan zan Andima Ibiñagabeitia'k. Bere zaletasuna eta gogo zabala erakusten dausku beintzat aalegin onek. Katalanari be ekin eutsen, ango poeta nagusi batzuk irakurteko (Verdaguer, Maragall, Costa i Llovera, Mestres eta abar). "Garai artan, egia esan, katalanaren berbizkundieak txoratuta genduzkan gu guztiok eta gure ametsa alako zerbait Euskalerrian egitea zan" (*Eman. Cuadernos vasco-americanos*, 2, 1957, 1 or.: orain *Olerki guztiak, o.c.*, 506 or.).

*Azalpenak* idaztiak birrazaldu dituan lanak erakusten dauskue zelako literatura ezaguerari eban Lauaxeta'k. Ikusi daiguzan gaia ezagutuz darabiltzan izenak. Eladerazko idazleak: Omero, Pindaro, Teokrito, Safo, Sofokel. Erromakoak: Virgili, Ovidi, Horati, Apuleio, Petronio, Juvenal, Agustin.

Inglesak: Keats. ("Englanden sortu dan lirika lakorik inon ez dala sortu aitortu bearrean *gagoz*"-*Azalpenak*, 133 or.). Alemanak: Goethe, Holderlin, Navalís, Heine, Klopstok.

Italiarrak: Dante, Foscolo, Leopardi, Carducci ("sei illabete ez dira Milan'etik ekarri nebazala aren Odak", diño 1932 garreneko urrian -*Azalpenak*, 131 or.).

Frantzikoak: Andre Chenier, Victor Hugo, Musset, Lamartine, Gautier, Baudelaire, Mallarme, Bataille, Richepin, Valery, Apollinaire, Claudel, Gide, Cocteau.

Katalanak: Costa i Llovera, Maragall.

Espanarrak: Fray Luis de Leon, San Juan de la Cruz, Garcilaso, Gongora, Becquer, Unamuno, Machado, Alberty, Garcia Lorca, Guillen.

Bibliatik: David.

Aipaturiko olerkari batzuen olerkiak eta beste batzuenak (Tennyson, Verlaine, Jammes, Sully-Prudhomme, Maeterlinck, Banville, Verdaguer, Mazzoni) itzuli ebazan 1928-1929 garrenean, ain zuzen be *Bide Barriak* idazten eban sasoiari. Beste izenik be aipatzen dau, batez espainiarren artean, baiña emen jarritakoak bere literatura eta olerti ideak argitzeko adibidetzat ataraten ditu, eta euren barruragoko ezagupena erakusten dau.

Euskaldunen izenak be agertzen dira. Bere belaunaldi-ko olerkariak: Lizardi, Orixe, Jautarkol, Jakakortajarena, Tapia-Perurena, Zaitegi, Onaindia, Erkiaga, Muniategi; bere aurrekoak, oindiño aldikideak: Emeterio Arrese, Kepa Enbeita, Manu Enbeita Gabirel. Erabili eban Manteola'ren *Cancionero Basco (Olerki guztiak, o.c., 509 or.; ikusi bertan Eusebio Maria Azkue'ri buruz).*

Bertsolaritzaren estimaziño andia erakusten dau 1931 garrenean idatzitako lan baten: ez dago eurak lakorik Aberriaganako maitasuna biztuteko (Aberriaren suak urteten eban Kepa Enbeita'ren aotik eta igarle bailitzan entzuten eutsoen). Bazkuna eratu bear litzake eurai laguntzeko; orretarako bertso zaarren liburuaren premiña dago, eta pozik jasoko ditu bialduko dautsoezanak (*Azalpenak, 171-2*).

Labur esateko, Lauaxeta'ren literatura eziketari iturri oneek arteko izan dira:

1. Elade eta Erroma'ko klasikuak.
2. Dante aaztu barik, España'ko klasikuak.

3. Emeretzi eta ogeigarren gizaldietako Europa'ko olerkariak (baiña amazortzigarreneko Chenier'engandik asita: asko miresten eban neoklasiku au *-Azalpenak, 131: Chenier lako olerkari asko ez dagoz ludion*).

4. Euskalerriko poesigintza literario eta errikoia.

### 3. Lauaxeta'ren poetika

Oraintsurarte ia zearka bakarrik ezagutu geikezan Lauaxeta'ren literatura ideak, bere aldikoak esanikotik eta bere olerkiak aztertuz (baiña beti be garrantzitsuak ziran bere oar eta sarrera laburrak). *Azalpenak* bildumak orain artez-arte dakarskuz bere ideak.

Orixe'k antxiñako poeta jatorretarik ez jakola ezer andirik itsatsi bota eutson eta "milinga eta itxuranaiekoa" zala aren "Maitale kutuna" (*Azalpenak, 129, 131, 133*). Lauaxeta'ren erantzunean ainbat idea dagoz, eta bearbada danak ez datoz bat. "Neurekiko klasiko ez naz, romantiko bere ez -zer zara, ba?- edertzalea" (bertan, 135). "Batzutan klasiko eskolara joaten naz, beste batzutan Heine'ren eskolara. Noizbaten Valery jaunari agur egitera edo parnasianoai" (bertan, 136). Gautier'en ideaategaz be erantzuten dautso: "Beste batzuegan gogai argiak, bakunak eta tolesgeak sortuten diran legetxe, euren adimenean gogaime, igeskor ta itzungabeak ernetan dira. Ludiko gauza eder guztiak aurrez barik, ertz batetik begiraturten dautse". "Gauza batek besteagaz daukon zerikusian errezena jo barik, zailenari laguntza eskatuko

dautsoe". Tolesgetasuna itxuranairik andiera izango litzake eurakan (bertan, 140). Emen baiña konparaketa arriskutsua agiten dau eta Gautier'ren idearen makala erakusten dautso: "Aitonon semeai jazoten jakena. Aitonon semeok edo nobleok azkenerako seme murriz, erdi geixo eta euren sendia amaitu daroe. Odola meetuten jake edo". Konparaketa onek kontrakoari emoten dautso errazoaia. Baiña Lauaxeta'ren pentsamentua au da: zelan neurtu nor dan klasiko, edo nor dan benetako olerkari? Era bateko baiño klasiko geiago dira: Orixe'ren klasikuak bake andia erakusten dabenak eta gauzai aurrez-aurre begituten dakienak litzakez. Baiña gu, diño Lauaxeta'k, "gerokoak, ezilkortasunak, zadorrak jo gaitue". "Guzti orreik olerkietan azaldu dagikeguz. Zergaitik ez?" (138). "Gaur klasi-koen eta idazlari onena izango jatzu, oraingoa ondoen bere olerkietan eta idaztietan azalduten dauana. Eundi bakoitzak bere klasikoak daukoz. Eta klasikorik onenak izan daitekez gaurkoan itxura naiekoak diranak" (142).

"Idazlearen edo olerkariaren argia bere ondoan igituten diranen min eta biotzberak, oiñazeak eta gogaik ikututea, gauzarik ederrena" (142). "Baiña idazle orrek bake girorik ez dauko —esango daustazu. Bake girorik ez dauko, bere egunetan bizi ziranak bake girorik ez ebelako euki. Bizitzako goraberak, eriotzeak, siñiste zalantzeak eta urduriak kezkatutako gogaian kiñuak idazlari orrek azaldu ebazan" (142-143).

Lengo konparaketa irriz, ironiaz esana da, bere argumentu lineatik kanpora: 1) Bera ez da eskola bati lotua. 2) Klasikotasuna ez dago bake andian edo antxiñako bakuntasunean, gizonaren eder-egia ondoen azaltzean baiño. Giza-eder-egi au aldatu egiten da, eta oneri jagokon azalaz azaltzean datza klasikotasunak bear dauan armonia, ez beste barik gaiaren baretasunean. Giza-ederraren esperientzian ikuskera eta sentikerea be aldatu egiten diranez, era barriak eta ezbaridiñak ez dira berez itxurakeri, "amaneramiento". Jakiña, era barri ta ezbaridiñen egokitasuna defenditzen dauanez, ez dau emen argi izten itxurakeria sarritan jazoten dala, antxina eta orain (baiña ez Orixe'ren errazoiakaitik).

Azpi-marratu daigun bere aldiko gizona zertzelada sakon eta dramatikoakaz margozten dauala. Aldiko gizona ezeze, Lauaxeta bera agertzen da or, gizon eta olerkari. Ez da beti ain logikoa, alan be. "Saboi aparrez egin daikiguz olerkiak bere, egun baterako baiño ez diran izango, ta zer? kutsu ona itziten badauskue, ordu onean betorz" (137). Barriro be emen era guztietako olerki-motak defenditzen ditu, eta errazoiz; baiña ez dator bat aurrean azpi-marratu dogun errazoibide sakonagaz, eta, dana dala, mota guztiak ez dira balio bardiñekoak.

## 50n. URTEA

Zer ikasi geinke klasikoakandik? "Orixe jaunak maite dauzan klasikoak zer erakutsi legiskuen jakingarri jaku" esan eban aurrerago (144). Orain, erantzuna emoten asten danean, mota guztietako idazleak ditu gogoan, edertasuna azalduten jakin daben guztiak (145). "Baiña leenengo maillan dagoz doai orreekaz lan iraunkorra egiten aalegindu diranak. Gizatasunari jagokon idaztia iraunkorra da" (145).

Leenengo maillan, lan iraunkorra egin dabenak. Izate, sentikera eta ikuskera aldatzeaz izan da leen berbea. Baiña lan batzuk iraunkorrak badira, zeozer geratzen da, gero aldietan adierazgarri eta esanaitsu izateko. Ez dago kontraesanik. Zeozer aldatu egiten da eta zeozer geratu, eta aldian aldiko gizonaren izatea benetan azaltzen dauana da gerorako be esanaitsu. Ikusi daiguzan orain klasikoen irakatsiak.

a) Gorengo idazleak "neurria" edo "batasuna" edo "osotasuna" emon dautsoe eder-lanari. Baiña osotasun ori zetan datzan dogu barrero be eztabaidagarri. Zentzunak epaitu bear dau. Baiña zentzuna ez da adimen otza, edertasun-zentzuna baiño, au da, ez oizko logikaren batasuna, eder-esperientziak berak eskatzen dauan batasuna baiño, berak eskatzen dituan erlaziñoakaz.

b) Klasikoakan erderazko "humanismo" doia ikasi geinke. Emen Lauaxeta'k giza-doaien aziera armonikoa dau gogoan: gogo, biotza ta irudimena bateratsu aziz. Azoera armoniko onek be parte andia dau bakegiroa sortzean (146-7).

c) Aukerea bear da gero, agokerea, gai egokiak aukeratzeko. Gaiok "izadi amearen altzoan" eta gogoan, biotzean, aukeratu bear dira. Lauaxeta momentu onetan klasikuegi egiten jakula esan lei (Orixe'ren zentzuan): ez da itzi bear izadiak biotza larregi ikutu daiskun, gizona izadiaren erregea da-ta, zaldiak ugelakaz nai dan lekura eroaten diran lez (147).

d) Sentitzen dana era berean azaldu bear da. Jatortasuna, "sinceridad". Eta izadia adimenaz barik begiakaz artu bear dogu, eta "dakusguna aldatu barik zor jakon itzalez edo zentzunez argitaratu egizu". "Ikututzeaz" dagi berba, eta beraz ez da izadi utsa bakarrik, izadiak olerkariagan sortu dauana baiño. Bestalde, jatortasun ori ez da errekeria: "izadiak berak biotza ikutu baiño leenago" goaz idazten "geure buruak eta irudimenak sortu dabezanak azalduteko asmoz" (148). Pentsa lei izadia eta gogoa alkarren kontra jarten dirala: izadiak "ikutu" bako gogoa eta biotza esan gura dau, azken baten inspiraziño bako irudikeria.

Orri onetan eta oindiño geiago "Lizadi olerkari" lanean (*Azalpenak*, 149-156), garrantzi andia ezarten jako

izadiari olerkigintzan. Bere olerkietan egitez zelan agertzan dan geroago ikusiko dogu. Baiña orain, bere poetika aztertzean, errealista eran ulertu bear ete da? Aipatu dogu leen izadia eta gogoa, biotza, dirala olerkiaren sorlekua. Gogo au geratu da emen, Lauaxeta'ren berbetan, edatu barik. Baiña gogo kreatzaillearen eskubidea duda barik autortu dau: "Baiña beste egi batzuk bere badira. Geure adimenaren barruan egi asko dira, izadian eutsikairik euki ez arren. Eskuekin ikuru aal doguna ezeze zerbait geiago aurkitu geinke" baieztu dau ain zuzen be bere olerkerea defenditzean (137).

Eta ain izadi gurtzaille agertzen dan "Lizardi olerkari" lanean be, San Juan de la Cruz eta MaragalPegaz batera Leopardi'ren *Vlnfinito* olerkia gogoratzen dau adibide eta jarraibidetzat (*Azalpenak*, 153). Ain zuzen be, olerki onetan olerkariak ikusi eta entzuten dauana oler-bizikuntzaren zati bat da soillik: ikusten dauan apurragaz batera "in-terminati spazi" eta "sovrumani silenzi e profundissima quiete / io nel pensier mi fingo"; eta "betikotasuna" jator-ko gogora, eta "urtaro illak" oraingo biziagaz batera: "es-kerगतasun onetan murgildu egiten nire gogoa". Ez da izadiaren deskriziñorik; izadiaren barruan sortutako irudi eta pentsakizun eta sentipenak dira. Au da Lauaxeta'k benetan esan gura dauana.

Izadi eta gogo-biotzaren ondoan ez dau aipatu "gizadia", gero ikusiko dogunez ain esentziala bere olerkietan. Izadia esanaz baliteke mundu osoa esitu gura izatea, nai ta bere adibideak egitez izadi-paisajetik artutakoak izan.

e) Orain arte gaiari buruz jardun izan dau Lauaxeta'k. Azala dala ta, "Edertasunaren erdia azalean dago", diño (148). Jakiña da, orregaitik zelan landu eban Lauaxeta'k azal txukuna. *Arrats-beran* bildumaren erderazko oarrean geiago diño oindiño: "El secreto de la poesia se ve en la gracia de la forma, en la pulcritud del buen decir". Larregi esatea dala pentsa lei. Baiña Lauaxeta'k leengo euskerazko textoan, errazoia emokeran argitzen dau bere asmua: "Urrezko marra jaurti egizu errekeria, ibaira, ta ura garden ez bada, ezer ez dozu ikusten. Gogairik txukunenak euki-ko dozuz, baiña azal naastua, loa. Ez da ezer ikusten (*Azalpenak*, 148). Zer dan azal egokia, "gardena", eztabaidatu leike. Baiña, dana dala, obeto ezin eikean azaldu azalaren izate ta eginkizuna olerkian: barrua erakutsi, ur gardenaren antzera.

f) Klasikotasunari buruzko lanean aipatu ez dauan beste baldintza bat jarten dau Lizardiren omenezko idazkian: "olertia sentitzen baiño leen, ura bizi izaten ikasi dezagun, geronek bizi izan ez degunik ezin esan dezakegu txukunki. Ertilari trebeak baiño leenago gizon onak nai ditugu, ontasuna utsik baita elertia. Nork beraren gogoa ederrez ez badu janzen, azaletiko ikusgarriak nola egingo

ote dira ziztada edo zirrara?" (149). Leenago, oster, Baudelaire'ren epailleai buruz, moralista izan zirala kritikatu dau, "eta idaztietan zileiztasuna neurtu bear da, baiña baita elertietzazko mamiña bere" (139). Orain ontasunaren ederra baieztatzen dau eta baldintza lez jarten. Ontasunak alderdi bat baiño geiago ditu eta edertasunak be bai, baiña ontasun osoa dauken eder-lanak ederragoak dira.

Gizatasuna aipatu dau leen Lauaxeta'k. "Humanismoa" ete da, ala jarraian esan dituan baldintzak osotzen ete dabe (batasunak, giza-menen aziera armonitsuak, aukerak, jatortasunak, azal ederrak), ala orain aipatu dauan "ontasuna"edo "arima ederra" (154), ala leen esandako aldiko gizonaren izaera emotea? Ez dot uste klasikotasunagaz beste barik bardintzen dauanik. Klasikotasunaren irakatsiak eta baldintzak billatu ditu, eta bein bakarrik erabilli dau "gizatasuna" berbea, benetan lan iraunkorrek zeintzuk diran agertzeko. Irakurri doguzan bere berbetatik, gizatasunak urrengo alderdiak artzen dituala esan lei: 1) Aldiko gizonaren izate sakona bere samin eta ardurakaz; 2) "humanismoa", giza menen aziera armonitsua; 3) ontasuna edo arima ederra.

#### 4. Lauaxeta'ren asmua olerkiak burutzean

"Izkuntza baztertu onetan be gauza asko esan geinkezala azaldu gura izan dot" (*Azalpenak*, 119). Idea bardiña *Bide Barrijak* bildumari erantsi eutson "Uarrean". Aberriagaitik argitaratzen ditu. Eta bere eritzia: "gaztaroko neurtitzok eztira sakonak, eztira gurenak, gauza guren eta sakonik gastaruan ezalako egiten. Geruago Aberrijari yagokozan neurtitzak egingo dodaz" (ikus *Olerki guztiak*, 168). "*Bide Barrijak* baderitxot, ez da izkuntzagaitik, geiagogaitik baiño. Orainarte erabilli ez diran gaiak diralako geure liburuan" (*Azalpenak*, 121). Eta ez dau uste Frantziko azken-azkenengo poeta barrizaleen antzera idazten dauanik: "France'n gaurkoetan Valery, Claudel, Gide, Cocteau'ren antzik iñondik ez. Leenago parnasiano esanak, neure gogokide, bearbada (129).

*Arrats-beran* asmu bardiña: "Gaurko egunez Europa'ko letretan lantzen dabezan olerki motak geure ele onetan biribildu" (*Azalpenak* 160). Baiña argitara emotea bere buruagazko burruka luzea kostau jako. Bere elerti-senak eta arrokeriak ezetz, "barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik"; eta ganera "Elerti-zale nazan onek onek ziarkeri ta pirtxilleritzat daukodaz olertijok" (*Arrats-beran*, "Aurre-itza"). Baiña Aberri maitasunak irabazi dau.

*Bide Barrijak* argitaratu ebanean, Aberri-olerkiak burutzea eban asman. Bere berbetatik laster egitekoa

zala ataraten da. Eta liburu atako azkenengo olerkia, *Itxasorala!*, aberri olerkia da gaian eta tonoa. Oster, agirian beintzat (kazetaritza lanaren ganera) ume-alegiak eta *Arrats-beran* liburuan agertuko ziranak idatzi ebazan olerki-arloan. Baifia Kortazar'ek jakin aal izan dau gerra aurretuan Roncesvalles (ez dakigu erderazko ala euskerazko izenaz) poema irakurri eutsolakoa lagun bateri (epikoa zala diño Kortazar'ek) (*Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak*, l. c, 82 or. eta oarra).

"Topa baten ostean" olerkiaren ondoren oar au jarri eban: "Elade edo erromatarren arauz egiñak diran olerki oneikaz idaztiñoa argitaratuko dau egilleak". "Era edo mueta askotariko olerkiak egin daitekezala egilleak adirazo nai leuke" (*Olerkiak* 1974, 172 or.). Asman eukan liburuari buruz illebet batzuk leenago (1935) "Idazti-antzo" Jautarkol'eri erantzunean: "Irugarren bertso idaztia laster argitalduko dot". "Ogei olerki idazti itxi gura neukez" (*Olerki guztiak*, 496 or.). Baifia "liburu ori ezta jente xeearentzat egiña" (*Olerkiak* 1974, 172 or.). Azkenengo oar berbera *Arrats-beran* liburuari buruz aipaturiko "idazki-antzo" lanean: "Neure olerkiak eztira erriarentzat egiñak, gitxiago literato ixun askorentzat" (*Olerki guztiak*, 495 or.).

Azken esaldi onek orduan bizi ebillan polemikara garoaz. Gai onetaz irakurri J. Kortazar: *Gerra aurreko giro literarioa*, Jakin, 29 (1983), 6-15 or.; L. Otaegi: *Aitzolen projektu kulturalaz*, Jakin, 29 (1983) 18-25 or. Auzia laburtuz esan daigun era bitako polemika izan zala: bata euskereari buruz, bestea poetikari buruz. Erlazionata dagoz, jakiña, baifia ez ziran gauza berbera. Esate baterako, Orixe ez zan Lauaxeta'ren poetikaren zale, baiña izkuntzan barrizaleen artean zan (eta poetikan bere bai, baiña beste bide batetik: bere "klasikuen" bidetik). Izkuntzari jagokonez, euskera errikoia, bizia, eta euskera garbizalea (eta orrela erriagandik urrindua) ebiltzan burrukan. Poetikan, batzuk aurreko euskal olerkarien egikera, bertolaritziatik ur, bertso errezak, oizko gaiak nai ebezan. Poetika barria, oster, Euskaler'riko poesigintza beste naziñoetako mailla jantzi ta modernora jaso gura ebenak defenditzen eben. Lauaxeta'k poetika barriaren alde olan diño: "Eskribatzaileak batzuk dira, beste batzuk "literatoak". Aldakuntza andiak dira bioen artean. Idazlearen lana erriarentzat dan ezker, erriarentzak idatzi bear dau... Olerkariak literaturarako ei dauz... Dante'ren poema ederra erriak irakurten dau? Bai zera! Goethe'ren lanak edonork irakurri ete dagikez? Ezin ba..." (J. Kortazar: *Gerra aurreko giro literarioa*, l.c, 11 or.). Errezkeria zapuztuten dau: "Euskerazko olerkiak gaitz edo akats bat dute: erreztasunaren kaltea. Milla itz bulko bat azaltzeko. Gero konsonanteak egiteko erreztasuna delako, bertso bat eta bertso bi, mamin gabeko olerki" (*Azalpenak*, 156).

## 50n. URTEA

Aitzol 1933 garrenetik aurrera erriagandik ur dagoan izkuntza ta poetikaren alde jarri zan: (Koplak) "irakurri utsaz eta entzun utsaz errex aditzen dira. Eta onelako olerkiak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gere bertso zail eta idazlan ezin entendizkoaz aspertu ditugu. Geok ere, idazleak, aizkenaz nekatzen ari gara. Inor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz erruduna. Baña guztiak bide txarra utzi eta bide onera jo dezagun... Ongarri baño txarkeri geiago euskerari egiten diogu.

Guztiok euskera maite degu. Gure elburua euskera piztutzea da. (*El dia* 1933-2-12: L. Otaegi, *Aitzolen projektu kulturalaz*, l. c, 22 or.).

Izkuntza arazoari buruz, orduan, eta ia geure egunetarrate, idatzi zan lanik zabal eta sakonena Severo Altuberrera izan zan: *La vida deleuskera*, "Euskera", 1933, 299-397 or.). Erriaren euskera biziaren aldeko lan realista eta bikaiña.

Lauaxeta'k eta kidekoak aurrekoen poesigintza be estimaten eben (eta ikusi dogu bertsojaritza be bultzatu gura eba-la), baiña poesigintza barriaren bearritzana ta izatea defenditzen ebezan. Eta izkuntzan be euskera garbia. Errazoi osoa eben poetika aldetik euren jokera orokorrean. Baekien euren olerkigintza ez zala beste barik erri guztiarentzat, beste izkuntzetan be jazoten dan lez (eta arte guztietan). Baiña euren ustez euren erako olerkia be azken baten erriaren gora ta dedurako zan. Eta egia da. Alan be, poetika aldetik eta izkuntza aldetik mugak daukez. Gogorre-giak eta ez berezko dira batzuetan euren olerkiak.

Aitzol'en ardurea euskerea sendotu ta zabaltzea zan, eta guztiz zuzen ebillan idazleen eta erriaren artean troka aundiegia egoala eta olako idatziak ez ebela benetan euskera sendotzen esatean. Baiña era askotako idazleen artean, olerkari modernoen eskubidea eta berrizana be autortzen jarraitu bear zan. (Olerkariari buruz, ona Orixe-ren testigantza: "Lizardi ta Jaka-Kortajarena ta ni ez ginduzan bere deboziñoakoak. Lauaxeta, Jauregi, Tapiaperurena zituzan bere kutunenak"-S. Onaindia: *Eskutitza*, Bilbao 1974, 24 or. (1953-XIM2).

Lauaxeta'ren esanetan, eta bere olerkiak aztertuta, au daukagu: olerkiakaz euskerearen aalmena erakutsi gura ebaia. Eta bein era batekoak probaten ditu, bein beste-koak. Europa'ko orduko eta ieenagoko erak. Umeentzako alegiak. Gero Elade eta erromatarren erakoak; eta orrela ogei bat liburu osotu bear dituala diñosku aurretizik. Asmu onek ez ete dira boluntarismo, trebetasun eta bertso-joko, eta ez ainbeste goi-argi ta berezkotasun?

Beste aldetik, olerkien euren egia eta Lauaxeta'ren autorkuntza daukaguz. *Bide Barrijak* liburuaren azken "Uarrean" olan idazten dausku: "Or-an entzun eta ikasi

dodazan gogai batzuk neure bijotzaren barnetik euzkeralduta agertu dodaz". Biotzaren bametik. *Arrats-beran* bildumaren "Aurre-itzean" olan diño: "Ludi onen bestalde loratzen diran landaraen usañak goxalde bakoxtak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorrta eta barneko zugatz oneitatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu". Ez aaztuteko leen leku beretik aipatu doguzanak: "barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik".

Arazoa izan leiteke texto era bi onen artean, baiña ez da kontraesanik. Bere olerkiak be mailla diferentetakoak dira, alegi bertsoetatik asita (oneek benetan olerkiak izan be ez dira). Ezbardiñak orizontalean eta sakonean. Orizontalean diferente diran eder-gaiak era ezbardiñak eskatu leikeez, eta aukera andia itzi olerkariari. Sakonean ezbardiña izateak gai bardiña zelako berarizko goi-bero ta argiz ikusi eta sentitzen dan esan gura dau: poezibizikuntzarik sakonenekaz ezin lei literatura jokorik egin, goi-beroak eskatzen dauan era egokia billatu baiño. Onen antzekorik badiño Lauaxeta'k berak: batzutan klasikuen eskolara doa, beste bein Heine'ren eskolara, edo Valery eta parnasoanoai agur egitera: "gogoia zelan, kutsu alan. Gaur alai ta barre egiten dot, biar itun eta negar. Egunari berea" (*Azalpenak*, 136).

Lauaxeta'k literatura erak, baliapideak, jantziak bereganatzeko erreztasun berebizikoa erakusten dau. Bere irudimen eta belarrian biurkoi, malgu, aldakor agertzen da. Olerkigintza oso aberatsa burutzeko doaiak. Baiña erreztasun-doai orretan bada arriskurik, geroago eta era liraiñagoetan eta bakanetan saiatzeko arriskua, benetako norberaren poesi-deia lausotuz.

## II. LAUAXETA'REN OLERKIEN GIZATASUNA

Emen gizatasunaz, Lauaxeta'ren berbetatik ur, au ulertu gura dogu: gizonaren mundu onetako izatea osorik artuta, eskuratzea (edo ikututea) eta adieraztea; "eskuratu" edo ikutu diñot, "ulertu" intelektualegia dalako oindiño. Olerkariaren ulertze au biotz adikorrez, biotzberatasunez, jazoten da poesi-intuiziñoan. Ez da abstraktoki egiten, edo analisi eta razonamenturen bidez; aldiko gizona egite eta zer konkretoetan, ulertzea eta sentitzea batera doazela, "eskuratuz" baiño. Aldiko gizon orretan aldi guztietako gizonaren izate-zadorra esan guratsu lortzen da. Eta olan da olerkari bat benetako azken zentzunez klasikua: ez izkuntzagaitik bakarrik, ezta estilo bateko gorengo adierazlea izateagaitik be: bere giza-ulermenean gizatiar eta gizakor agertzen dalako baiño.



## 1. Giza agerpenak

Asi gaitezan azaletik eta errezenetik: zeizaki agertzen da Lauaxeta'ren olerkietan? *Bide Barriak* liburuan 41 olerkietatik bitan ez da agertzen personarik (edo obeto esateko, bietariko baten olerkaria bera agertzen da izadi erdian, garbi ta bake billa; bestean pizti bat). Beste irutan izadia, paisajea, dala esan lei garrantzitsuena (*Neguko gaba*: baiña emen be "umeen begiak" eta "asaben eredu garbiak" gogoratzen dira; *Artxanda ganian*: irudimenean personak agertzen dira, eta moral gogoketa da; *Goxaldeko edurra*: anaiagaz dagi berba). Beste olerki guztietan gizakiak edo Jaungoikoa ta zerutarrak dira olerkariagaz batera protagonistak.

*Arrats-beran* liburuan 40 olerkietatik baten agertzen da izadi utsa, persona barik (*Etxe ori*); beste irutan be esan lei izadia dala protagonista: *Goxaldeko otoy*, *Ziñiste bakuarena* (izadia eta fede-billaketa), *Mayatzeko kantea* (izadia, gogo eta "zure balkoia").

Batu bako olerkietan, kartzelakoak barik, 41 edo, lau alegi dira gizaki bakoak, berezko danez, baiña giza-morala dabe asmuon beti be; pare bat olerki aparteko eraz izadia protagonista dabenak: *Udabarriko abestia* eta *Igande goiz batez* (lenengoan, gazteai deadarra udabarrarian; bigarreanean, Jainko aztarnak izadian). Kartzelakoetan (10), danetan dira protagonista personak.

Itzulpenatan (21 edo) be personak agertzen dira beti eta eurak dira geien bat protagonista.

Esan dogu leen batez be "Lizardi olerkaria" idazkian zelan goraltzen dauan izadia olermen-iturri lez (ia bakarra agertzeraño). Bere olerkietan be, era batera edo bestera, sarri agertzen da. Baiña ez askotan protagonista lez, eta gitxiago persona barik. Ez dot izadiak Lauaxeta'ren olerkian dauan indarra makaldu edo ostendu gura, ez litzake egia izango eta. Izadia askotan eder-giroa da; batzuetan olermen-biztutzaille, eta sarritan olermenaren adierazpide (olerkariagan, personen barruan jazoten danaren adierazpide). Baiña Lauaxeta'ren olerkia ez da geien bat izadian geratzen, gai personaletan bilduten da. Lauaxeta'k personalizatu, gizatu, egiten dau beingoan izadia, giza-etxe biurtuz, giza-inguru arrigarri ta biztutzaille.

Dato au azpimarratuz ez dot gitxiesten izadi-olerkia. Eta, bestalde, giza-gaiak erabilteak ez dau beste barik sortzen gizatasunik. Jakiña izadia indartsu dan olerkia giza-tiagoo eta sakonagoa izan leitekela. Baiña au ez, alan be, olerkia izadian asi ta amaitzen bada, izadi ederraren deskriizio utsa bada. Kuadru errealista bat, argazki bat. Baiña itxuraz deskriizio dan olerkia izan leiteke giza-gogooaren adierazgarri, izan leiteke giza-biotzez astun. Zuze-

nean giza-itzik ez urtetea izan leiteke giza gogoazaltzeko erarik meena eta zorrotzena, izadia berba ta sinbolo biurtuz. Lauaxeta'k *Gaste gexua* olan amaitzen dauanean: "Baña ostroen dardarak eta txorijen txijuak iñor ez eben idoro alai egiten basuak", ez dau argazki deskriizio egiten: berbearen bidez "iñor" idea agertzen da or (kontestoaz ganera), eta izadiko gaiak falta danaren tristezea markaten dabe.

## 2. Giza-sentipenak

Bigarren, bere olerkietan agertzen diran sentipenak edo sentipen-gaiak batuko doguz. Izadi eder-sentipena, emakume-maitasuna, aberria, gaztetasuna, langileen-zoria, aldia ta igarokortasuna, zoritxarra, eriotza, gexoa, errukia, mundu barria, samiña, poza ta jai, itxaropena, bake-egarria, atsedeen-eziña, tolesgetasuna, garbi-egarria, giza-burruka, adiskidetasuna, jaungoikozko bizikuntza, eguneroko pozaldiak (anakreontikak), bertso jostagarriak, alegiak (didaktikoak).

Sentipen edo sentipen-gai oneen artean, iraunkorrak eta nukleoak diranak ikusi bear doguz orain. Nire ustez, oneek litzakez: maitasuna, gaztetasuna (bere inguruan mundu barria, itxaropena, aberria, azkatasuna dabiltzala), aldia eta bizitzaren dramatikotasuna (ames apurruak, geixoa, zoritxarta, eriotza), eta ikergarri dan jainkozko bizikuntza.

A) **Maitasuna.** Emakume-maitasuna sarri dau gaitzat era batera edo bestera. Maitasun oso *ideala*. Gorengo erdutzat geratu da bere "Maitale kutuna":

Iñoz ikusi bako maitale kutuna  
neure opa samurrok laztanduten dabe.  
Begi gelgarriz dargist bijotzeko illuna,  
eta bere larrosak usainduten nabe.

Olerki oneri jarritako kritika-oarretan Orixe'k "au geiegitxo esatea da" idatzi eban. Lauaxeta'k erantzun: "Giza maiterik ez da izango ludion ain garbirik, baiña izan leiteke" (*Azalpenak*, 137). Gogo-sorkuntzaren eskubideak defenditzen ditu.

Ideala emakumea bera, ideala maitasuna (olerki orrek erakusten dauan lez), eta idealak maitasun-artuemonak:

"Ta mosu onek —samurki diraust,  
ez dabet anei abesti?" (*Mosuba*)

Edo-ta olerkariaren irudia biotz barruan "maitasun izkiz" idazteko diñotso (*Bijotzean*), edo izarrari bere maitarearen malkoa dan itaunduten dautso (*Illuntzeko ixarra*).

## 50n. URTEA

*Arrats-beran* liburuan maitasun *abentura* batzuk dira nabari. Neskea ostu ta zaldi ganean eroan (*Oraingo maitarijak; Bolutxu zuria*). Edo, edontzi artean ederra dan neskeak adaleen maite-grifiak bitztuten ditu, danak alkar zauriz urratu arte,

"Tabernerea barriz leunki  
Irripar dago ontzi artian" (*Txiribogiñaren alabea*).

Baiña emakume maitasun idealak emen be jarraitzen dau:

"eresa baiton ederren  
andera baten itzetan" (*Jostallua; Itxas-ondokoena; Espetxetuarena*).

Idealtasun orren inguruan jarri leikez *Mayatzeko gurutza* eta *Mayatzeko kantea*. Izadiak inguraturik eta izadia ederra maitasunaren jantzi eta adierazbide dala, lilluraz ikusten ditu emakumea eta gazte arteko artuemonak.

Maitasun *zoritxarrekoa*. Idealtasuna baizen iraunkorra da emakume-maitasunaren zoritxarra. Era askotara jazoten da au, baiña asikeratik azkenerarte irauten dau. Erantzunik eza, edo ziurtasunik eza, lortu eziña (*Itauna, Erantzuna, Jadetsi eziña, Illuntzeko ixarra*); mingotsa (*Abaua*), eta zauria (*Zaurija*); maitasuna galtzea edo iltea (*Ituna, Iturri negarra, Lied, Betikorra*); personearen eriotzea (*Arotzak, Ezkontza goxa, Lili negarra, Bere illobian*).

*Arrats-beran* bilduman samiña alkartzen dau maitasunagaz (*Itxas-ondokoena*), ituna neskatilla ederragaz (*Zelayan, Etxeko alabea*); griña bortitzak eta odol ixurtzea (*Txiribogiñaren alabea; Artzañena* olerkian aipamen bat dago); samiñezko eriotzea (*Artzain baten erijotzean*); maitalea ez da agertzen erailla izan da-ta (*Ezkontza goxa*).

Maitasun ganeko odei illun asikeratik nabaritzen dogu eta, gero ikusiko dogunez, beste bizitzako eta poesi-arlo-etako gaien ganean be sentitzen da bere zemaia.

**B) Gaztetasuna.** Gaztaroa bizitza biziteko gorengo era betea lez ikusten dogu Lauaxeta'gan. Olermenaren biztutzaille da. Ain zuzen be, gaztaroa *biziaren* eta *ederraren* aroa dalako:

"Argidun  
berein gauza txukun  
ludi onek daukaz grazian.  
Ederren  
ogei urte lerdin  
gorputz baltzizkan diranian" (*Bertso zarrak*).

"Gastaro, eder dan lorea,  
eugaz yabilk mutil-kantea  
ta neskaxen dantzaketea" (*Mayatzeko Gurutza*).

*Eiztari andija, Palankari bati, Itxastar gaste bati* olerkietan gaztearen bizia, ederra, indarra, eta izten dauan utsunea. Bizikerarik beteena dalako, gaztaroa amaituaz dana amaitzen dalakoaren sentipen illuna dau:

"Bein gaztaroa il ezketiño  
nekosta baltza ixango yaku laguna" (*Udabarriko abestia*).

*Etorkizun barriaren eta itxaropen* zabalaren aroa:

"Lagun kutunok, gaztiak gara!  
Burubak jaso argiz txauturik.  
Itxaropena abestu daigun  
maitasun-euna mendi goyetan loturik" (*Udabarriko abestia*).

"Lur-barri billatzale ametsa lagun dogu".  
"Geure abenda-antzo pioneer gaste gara".

"Itxaruak berua euzkotarren ontzija  
gogauk nausi diran argitasun goiraño" (*Itxasoral*).

Berezkoa da, beraz, *emakume-maitasuna be gaztetasun* barruan sentitzea:

"Gaste zintzo batek itun so-dagijo  
ortzi urdiñeko ixar argijari" (*Illuntzeko ixarra*).

*Zaurija* olerkian neskatiñak "gaste bat lotzen" eban zapiñoan. *Sevres'ko murkua* olerkian "abade gaste batek diño maite miña". Emakumeak gazteak dira: *Burtzaña, Neska gorriska bati, Zelayan, Mayatzeko Gurutza, Begijen omenez*.

*Aberria* be geien baten gaztetasunagaz alkartzen dau. Leen aipatu dogun *Itxasora!* aberkideai deia da lur barriak eta "bide barriak" billatzeko, "ez indarrez, gogayakaz baiño". "Pioneer gasteak" ditu lenengo gogoan.

*Mendigoxaliarena* olerkian:

"Amar gasteren lerdina  
bixitza barik lurrean!"

"Amayur gaztelu baltza" defendidu ebenak be napar seme gazte ziran lez. Kartzelako olerkietan be aurkitzen dogu irudi au:

"Gazte argi orreik, eutsi lur amari!" (*Azken Oyua*).

*Agur, Euzkadi* olerkian, bere gaztetasuna dau begi aurrean Aberriagaitik bizia emotean.

*Elduaren eta zaararen* bizikuntza poetikurik gitxi agertzen da. Zertzeladaren batek erakusten dausku norantza joan eitekean esperientzi poetiku ori:

"Asaben sutian piztu urrezko garra,  
ta goguan bixitz-arau dan indarra.  
Aberrijan txadon donia  
AREITZ-suba dagon sutia.

Or, neguko latzazko gau-ordu luzeetan  
aintzezko itz-sakonak, idazti zarretan,  
daurkiz gogo ameslarajak.  
Asaben eredu garbijak...

Alan be, jarraian, deadar au kontrajarten dau:

"Poztu, ta bijotzak ez euki urduri;  
gaste ule baltz gara, ez zar ule zuri". (*Neguko gaba*).

Ostera, badaukaz zarra era barregarritz agertzen dan leku jostari bi: *Ardua ta atsua* eta *Atsuarena*. Baiña bere begirune sakona bertso oneek erakusten dabe:

"Onetsiten zaitut gaztaroko barre garbian,  
baita be zartzaro zimurreko buru zurian." (*Eresi bakuna*).

Olerkari gazteak gazte lez mundua ta olerkia sentitzea gauzarik berezkoena da eta oartu bearrik be ez litzake izango. Baiña Lauaxeta'gan biziaren beraren sentipen poetiku lez ikusten dogu. Eta olermen-bizikuntza mugatua izan arren, ez da orregaitik inkonstzientea. Errealismoz ikusten dau gaztetetasunaren inguruan munduko zoritzarra, geroago ikertuko dogunez. Orain gaztetetasunak berak zuzen dituan *amenazuak* ikusiko doguz.

"Barnera so-dagit: gabeko itzal-antzo,  
lexa barru ontan ezin dagit zantzo" (*Gexorik nago*).

*Gaste gexua* olerkian zuzenago oindiño kontrajarten ditu gaztea, geisotasuna eta eriotza:

"Enara batek bezela gastetasunak narua  
eta eguak zabalik gorantza juat gogua".

"Oraindik bixi gura dot, ludija yatan ederra.  
Itunak poztu egiten bua arin gexo ankerra!  
Negarrak ondo dirudi aguren begi munduban,  
baña mosuba ederren maite diranen abuan.  
Zarrak il beitez, oroyak-arren eztogu ayolik,  
itxaropenak galtziak eztauko barriz neurririk."

Gazte geisoaren agoan ipinten dau protesta au, eta samiñaren samiñak esan-azoten dautso zaarreganako ardurabakokeri ori: zarrak eta "oroyak" batera izten ditu albora gaztetetasunaren aurrean. Gaztetasuna, maite eta

itxaropenaren bizikuntza dalako. Gizatasunak uts egiten dau une onetan: azken baten personearen beraren duintasunak izan bear dau neurria ta.

*Mendigoxaliarena* be gogoratu bear da orain. Antzekoa dogu, gagokiozan gai onetan, *Eiztari andija*: goizez jantzirik urten eban gazte garbala an zetzan illik.

*Narkis* olerkian beste zemai bat sentitzen dau:

"Narkis, jausi barik errekan  
soñoi argijegia baitok!"

*Badakit* olerkian be "zoritzarmiña" aipatzen dautso gazteari. Eta leen atara doguzan maitasun olerkietako samin eta zoritzarrak be gogoratu bear doguz emen, egitez gazte maitatiaren zoritzarrak dira ta.

C) **Aldia ta igarokortasuna.** Munduko atsegin eta ederraren sensibildadea baizen zorrotza da Lauaxeta'gan igarokortasunaren kontzientzia. Gaztetetasunaren lillurazko guraria baizen zolia, danaren amaiera. Izadiaren bizikuntzak be gogoratzen dautsoe danaren izate igarokor ori:

"Zelai-orlegiko gentz-ziar emaro  
odeixka zurijan itzala digaro.  
Olan eltzen yaku erijotz antzija" (*Liparra*).

"Gauza danetan dakusat  
barre ta kanten prisea" (*Kanta ariña*).

"Maite nebazan gauzak juan dira igesi" (*Jaungoikotia*).

"Gaur gara, bijar ezerez barriz" (*Udabarriko abesti-ja*).

Gazte batek, Lauaxeta lez ia biziten asi dan gazte batek, zelan esan leike egiz maite ebazan gauzak joan jakozala iges? Ze perspektiba euki leike joanaren urrintasun ori asmatzeko? Urrintasuna errelatibo da. Eta gazte batentzat be aurreko urteak eta batez umezarokoak oso urrin geratzen dira. Irakurritako bertsoak Lauaxeta'ren aldi-sentipen bizia argitzen dauskue.

*Maitasuna* eta *gaztetasuna*, beraz, aldi jauskorraren barruan bizi ditu eta bizikuntza onek emoten dautse larri berezia eta batera ederra, giza izatearen misterioan bizi diralako.

*Arotzak* olerkian, zaarrak leenago amaitzen dau ilkuta gazteak ezkonoea baiño.

*Kanta ariña* kanta alai eta ardurabakoa izan gura leuke atsegin xeen artean. Baiña kontzientzi au ez da estalduten:

## 50n. URTEA

"Ba-yuat  
soin gaste onen lorea!"

Maitasuna aurkitu dauan momentuan be, eta alde onetarik baintzat ulergaitz egiten jakula,. olan diño:

"Maitasun ori,  
gero zeu baña  
beitu zindudan zorunez.  
Agur betiko,  
ixar ta lorak,  
gaztarua il da samiñez" (Bide-ziar abesten II).

Ala, zuzenean, maitasun-samiñakaz gaztaroko bizitza aske, kezkabakoa amaitu dala esan gura ete dau? Olan be, gaztaroa-ilte orren kadentasuna agiria da.

Aldiaren erdian, bere bizitza-zadorra pentsa-gai biutzen jako. Au sarritan gertatzen da. Baiña poema bat oso-rik eskeiñi dautso pentsagai oneri:

*Ezilkortasuna.*

"Urriak baduazi, urratsik eztager,  
Non galtzen dira-edo?  
Albaneukaz uler!"

Goi-atiak jo dodaz;  
dana dagir ixil.  
Itxas orren zabalari ontziririk eztager.

Gauz oneitan baña soil gagoz bijotzari.

Edertasun-zirrintan digart betirauna.

Erain zidor orotan ezilkortasuna.

Gerora adi beti, urduri, oldozkor,  
alderik onenera eratzatu zaite."

*Arrats-beran* liburuan ez dago olako olerki filosofikorik. *Bide Barrijak* argitaratutakoan Lizardi'k onako onu au emon eutson: "Yo le aconsejaria, amigo mio, que se haga usted todo corazon y ojos y que apenas deje a la cabeza sino aquel cuidado, recomendado ya, de dar unidad y encauce a los elementos aportados por aquellos; no le consienta usted demasiado a la conjetura, la disquisicion, la pregunta capciosa, el silogismo" ("Euzkadi", 31-12-30: Id. Kotazar, *Gerra aurreko giro literarioa*, l.c., 8-9 or.). Ondo ikasi eban lezifioa. Lizardi'ren omenezko idaz-

kian olan idazten dau berak: "Olerkari izateko oldozlari ez degu bear, ikusle edo begiratzaille aski. Zeruan izanen geranean ez degu oldoztuko, so egin, ikuskatu baizik" (*Azalpenak*, 150).

Alan be, olerkariaren aurrean itaunak, itaun bizikuntzak jarraitzen dau:

"Uñak jaurtiki bixitzara  
Bete baten itxartu nintzan!  
Zein bidez nuake leara?  
Galdu naz, galdu, neure baitan!"

Zador baten igeri nabil" (*Ondartza*).

Olerki onetako urtenbidea, edo beintzat momentuko amaiera au da:

"Baña enedin auldu urean  
gentza yagok, ba, itxas-ganian.  
Natzan lotan zabal neurgian  
Erijotz-uin otzak naruan!"

Onen antzerako bertsoak, ezetizismoa daroen bertsoak badagoz geiago be:

"Bidezti ez beti. Ez ibilli aron.  
Bijotz aul orreek, ez gurenai jaramon.  
Zidor ori nora? Eztauko azkenik... (*Gexorik nago*).

"Bixitza onetan ametsa da oro,  
zadorrik, arren ez egixu nai idoro.

Larrosak tori arantzetan,  
aldepona billatu gauzetan... (*Neguko gaba*).

"Zadorra" filosofikoa edo erligiosoa izan leiteke, baiña baita beste edozein gauza guren be: "ez leyatu goirik" (*Gexorik nago*). Eta *Neguko gaba'n* "larrosak tori" esan dauan lez, *Gexorik nago* olerkian, neke ta ezifiaren aurrean, "bildu goiz-otoya" esan dau. Baiña ezetizismoa be argi dago, "soil gagoz bijotzari", Pascal eta Unamuno'-gaz, diñoanaren ezetizismo-alderdia. "Natzan lotan zabal neurgian/ erijotz-uin otzak naruan" bertsoak be ez dira guztiz lenengoak Lauaxeta'gan. *Ezilkortasuna* olerkian gurari au aurkitzen dogu:

"Une gozo batean lo-iraungo baneuke  
betiko ames oneik amets-egin arte!"

Aurreko bertsoen ezetizismoa gogorragoa da, baiña emen be nekeak eragindako loaren eta ametsaren guraria agiri da.

Giza-misterioa aska-eziña dirudianez, gogo auldu barik errealismoz jokatu bear danaren pentsakizuna agertzen da:

"Liparra gozartu, ilkorrak bagara" (*Liparra*).

"Gastaro au galtzekuan,  
gal bedi

edontzi baten kolkuan" (*Kanta ariña*; ikusi *Bertso zarrak*).

*Udabarriko abestija'n* (*Bide barridak* liburuaren aldi-koa) "Jaungoiko altsubak" dakarren udabarriko atsegin eta itxaropenera gazteai deadar egikeran,

"Bein gastarua il ezketiño  
nekosta baltza ixango yaku laguna."

Ingurune oneri jagokoz *Topa baten ostean* eta *Mairako deia* (lenengoa 1935 garrenekoa, eta bigarrena be bai seguruen).

"Bertsotan esan dok asaben gaintza;  
gazteek maite yuen ezpaten aintza.

Edariz bustirik ezpanak  
birtute-itzak eder eztozak.

Moskorrak ez yakik barneko miñik.

Zoratzea on dok (...)

Zentzuna galtzeak azkatzen gaituk" (*Topa baten ostean*).

Lagunarteko edarira konbidatzen dauan Lauaxeta'k ez dau orregaitik ukatzen "asaben" gaintza edo aintza. Baiña adiskideekaz "ardo zar gardena" artzea be ederra da. "Ardoz edo argiz moskortu adi" da lenengo bertsoa. Ez aaztutekoa, gero, ardo-zoramenak dakarran "azkatasuna": gero ikusiko dogun olerki baten gaia dago emen azpian.

*Mairako deia* olerkiaren idea-giroa antzekoa da guztiz:

"Bizitzaren guna txastatzen yokanak  
ez yok artu bear jakitunen itzik.  
Jakintza onena ardo meeak yaukak!  
Bere kolkon, ba, ezyabilk zadorrik.

Geroa ezetsi, une eder ta argiak  
sari balio yok betiraunak aña!  
Gaur ezer ez dozak biarko liliak:  
ontzat ar egik, ba, neure mai apaña!"

Arinkeria dirudi batez be azkenengo aapaldi onek Lauaxeta'ren pentsakera eta sentikera munduan. Baiña kontestean artu bear da. Lenengo, Lauaxeta'k klasikoen antzerako bertsoak burutu gura ditu emen. Au ez da azalpen naikorik, olerkariak ideak eta esakerak euskeraz jarri bakarrik egin baleu lez. Ori azaleko joko utsa litzake. Ez. Nire ustez olerkariak or be barnez parte artzen dau. Bertso oneek Lauaxeta'ren beste alderdi bat erakusten dabe. Olerkari barrukoi eta pentsatia zan, baiña eder eta atsegin xee konkretoak maite ebazana. Azkenez, alderdi barri orretan amorea be ikusten dogu. Jakiña ez dauala "jakitunen itzik" ukatzen. Baiña, naiko jakituriz jantzia zanak eta geiago nai ebanak, une onetan umorez irribarre egiten dau jostari.

Aldiaren barruan badago Lauaxeta'k aparteko eraz sentitzen dauan beste errealidade bat: *zoritxarra gizona* joten. Aipatu doguz era batzuk, maitasuna eta gaztetasuna dirala ta. Orrezaz ganerako erak gogoratuko dodaz emen eta batera olerkariaren biotzbera azpimarratu.

*Goguaren eresijd'n* gai teologiku biurtzen da zaritxar aundia:

"Jaunguak gogo batzuk zauriz joten ditu.

Errukirik ostera eztagertse Jaunak.

Baiña beerengo lekura jausi diranean:

Ordu aretan baña Urtziaren mosubak  
Osatuten dauz euren zauri odoltsubak.

Orok iges-eitian Urtzi maitasunak  
Pozez laztantzen ditu gogo ain itunak!"

Jaungoikoaz diñoan biotzberatasuna Lauaxetaren beraren sentipena be bada. *Señai abestu* olerkian gizarteko jazoera tamalgarria kontaten dau. Olerki danez, ain balio aundiakoa izan ez arren, Lauaxetaren giza-ardurea eta biotz biguna erakusteko balio dasku. Tonoan onen antzekoa dogu *Ama gaxua*, umea itsua dala amak jakiten dauan momentua. Askoz landuago forman eta indartsuago barru-egituran dogu *Langille eraildu bati*. Gai oneri jarraituz, kartzelako olerkien arteko *Garbaia* olerkian (Bibliako profeten tonuan egiña) Jaungoikoaren asarrea erakusten da injustiziaren aurrean. Jaungoikoaren aurrera igoten daben negartsuen deiak eta zotiñak Lauaxeta'ren biotzean be jo dabe.

## 50n. URTEA

Aldiaren barru onetan Lauaxeta'ren giza-mundua osotzeko garrantzitsua da *Itzarrik* olerkia. Muifia lenengo bertso bietan dago (orregaitik errepetiduten ditu eta gero eurakaz amaitzen olerkia):

"Miñezko bideetan lor batek narabil  
irartzartu baitat lotan zan gogua."

Era bitara ulertu leike: ez dago argi "loa" kontzientzi bakoaren nasaitasuna dan ala errubakoaren umezko bakea. Baiña, dana dala (esanai biak batera be artu leitekez) orain Lauaxeta itzarrik dago eta kontzientzi orrak "samiñaren miña" sortzen dautso. Kanta arin guztien azpian jakiña ernai izanbear au dagoana, bere "zizta" ta burrukea: ernaitasun onek sortzen dau "ardo zedo argiz", "moskortu" bearra, au da, kontzientzia larregi ez zorroztea eta bizitza guztia bere zorroztasunaren agiñetan ez galtzea.

D) **Jainko-bizikuntza.** Jainko-bizikuntza Lauaxeta'ren olerkietan naiko sarri agertzen da; gitxiago *Arrats-beran* liburuaren aldiari. *Bizikuntza maitasunezkoa*; eta *erruki* lez asmatzen dauan maitasunaz;

"Nuan Goiko Aitaren erruki-altzora" (*Jaungoikotija*).

Jauna zugatz ganean ilda dagoan "artzain laztana" izan leiteke (*Artzai ona*). Aipaturiko *Jaungoikotija* dogu olerkariaren erlegiño-bizikuntzak aberatsen batu dituana. Jaungoikoa erruki ta bake lekua da. Laket artean be bere miña sentitzen dau olerkariak eta bera barik ez dauka atsegiñik. (Bardin *Jaunagan atsedena*, *Ludi ameskorra* eta *Gurutzeko jakintza* olerkietan).

Izadian billatu ezeze, ia izadi biurtu dauala autortzen dau bein:

"Bijurtu zindudan ba ixadi aratza,  
Larretako bakian nasai lo nengijan,  
ta begijok ebiltzan goxaldeko izpijan" (*Jaunagan atsedena*).

Olerki onetan gauza guztien "bakean" asmatzen dau Jaungoikoa. *Mendijetara* olerkian be garbi ta bake billa goietara doala, aintza damotso "Urtzi'n emoyari". Udabarrria "eskuban dakar geure Jaungoiko altsubak" (*Udabarrriko abestija*). *Mayatzeko gurutza* olerkian jaiia, izadia eta erlegiño-bizikuntza alkartzen ditu.

Baiña egiaz izadia "urratsa" baiño ez jako. "Gixon baitan" dago Jauna (*Jaunagan atsedena*). Onetaz, *Eresi bakuna* olerkia izadi eta giza-kontrajarpenaz egiña da:

"Izadian dakust zure aunditasun lorratza,  
gizadian maitasun irudi aratza.

Ortzi-itxaso-lurrak dira zure aintzan txadona,  
Zerorren txadonik ederrena barriz gizona."

Bildurraren bizikuntza ez da asko agertzen zuzenean beinipein. Zentzunbako aldiari egindakoak "Iepalduko daustaz gogoen Jaun danak", itauna egiten dau (*Itzarrik*). Ostera, *samiña* sarri jarten erlegiño-bizikuntza ingurutzat. Era guztietakoa izan daiteke. "Miren nesku tzaren baselexa" zar, gazte ta ume doaz, baiña aparteko eraz azpimarratuta agertzen da:

"Mendiko Nesku ori, zeure magalpera  
negar guztijak duaz, oñaze guztijak" (*Miren Nesku tzaren baselexa*; ikusi *Siaskakua* be).

Gizona aaztuta dabillanean, samifia da mandataria:

"Zeugan lotu gurarik gixonen bijotza  
zeuk ipiñi zenduban poz arteko mifia" (*Jaungoikotija*).

Sakoneko uste au da *itxaropen* iturri:

"Lenen zauriz josiak dozuz errukijan.  
Aitaren maitasunak baitau kutunena  
gaxua dan semia, seme mindubena!" (*bertan*; ikusi *Miren'i otoy*).

*On-bidea neketsua* dala be asmau dau beragan olerkariak. Eta idea teologiku bat jarriaz bere guraririk miñena azaltzen dausku:

"Odolez daukot neure gorputza,  
urratu nabe sasi "zorrotzak.  
Baña enabe orra zuzentzen  
nekezko bide mingotsak.

Arantza orreik mintzen bazabez,  
zatorz maitasun-bidetik!!" (*Gurutze aldera*).

Samiñaren realismo au azkeneraiño eroaten dau: Jaungoikoagandik urrun ez dago olerkariarentzat atsegiñik; baiña Jaungoikoaren ondoan be jarraitzen dau sufri-mentuak, nai ta beste era batera izan; itxaropen bizikuntza da azkenean garaille:

"Jaunguak gogo batzuk zauriz joten ditu,  
eta nekian euren gorputzak esitu.

Errukirik ostera eztagertse Jaunak,  
eta geiago joten dauz bere gezijak.

Amayeran maitekor Urtzi'ren irrijak  
zabalduten dautsoez zeruko atiak" (*Goguaren eresija*;  
ikus *Biotzaren negarra*).

Olerkariarentzat Jaungoikoa bere bizitzan bizi dan  
errealidadea izan arren, batera *beti billatzen* dauan azken  
errealidadea da:

"Banekijan zintzala, baña nun Jaun ori?  
Argitan, eskutuba zeure egote ori.

zeure maitasun ori urrun zan oraindik.

zeurerik ezin entzun, oben otsak baño.  
Nok igarri ondar-au? Ete nago itxurik?  
Neugan zagoz, ni barriz urrun zeuregandik.  
Badakit baña zeutzat autu dozuzanak  
bijotzeko urduriz, maite zagiezala,  
zerrorek azkon bixiz egiten dozula" (*Jaunagan atse-  
dena*).

Olerki onetan, jarraian, aurkitutako bakeaz poztuten  
da: Aren atean, artzea dei egitea baiño errezagoa; billatzea  
baizen leuna beragaz egotea; beragan maitatzen danik ez  
dago itxibearrik: "oro zeu zaralako, muin eta azala". Olan  
ba: "Zeure onari nagon, larritasun barik! / dana baita  
orrrako argizko bidia". Baiña au azken bakea ete da ala  
bidearen eta billaketaren beste era bat? Ez da azken giza-  
izatea, billaketaren beraren momentu bat baiño. Orregai-  
tik, azkenengo bertsoetan adorea sendotu gura dau:

"Atsedean bijotz orrek, ez ixan urduri!  
Jaunaren zabalean lei orok ixuri.  
Betiko poza bertan, maitasun osua.  
Arantz begira lotu, aron dan gogua."

*Ezilkortasuna* olerkia billaketa da osorik. Ez aldiari  
buruzko gogoketa intelektuala, bizitzearen itaun beroa  
baiño. "Jaungoiko egarriz" dabil olerkaria, "Jaungoiko  
gosez". Aurreko olerkian San Agustin zan erreferentzi-  
-puntu; beste onetan Unamuno. Azken bertsoak urtenbide  
au eskeintzen dabe bizitzarako:

"Zalantzan zaran arren, ezilkorra maite;  
—zeozer geure baitan badogu betikor—.

Gerora adi beti, urduri, oldozkor,  
alderik onenera eratzatu zaite."

Alkartu eziñak ete dira olerki biok? Batean "atsedena"  
aurkitzen dau; bestean ia zalantzazko billaketa "urduria".  
Ez dira alkatu eziñak; ez dira aldi diferenteetako bizi-  
kuntzak bakarrik; ori be bai; baiña aldi bakoetako bizi-  
kuntza ez da bestea deseustutekoa: olerkariaren izatearen  
"momentuak" dira, batera, bakoetako errealidade osoa ez  
dalako.

Oindiño aurrera egiñez Lauaxeta'k *ziñiste bakoaren*  
esperientzia emon gura dausku olerki baten. Igande goi-  
zean, "Gauz orok dauke Jainko betia"; "barne ta kanpo  
Jainko aztarnak / baña ilda daukot fede dirdaya". Orre-  
gaitik "otoi" egiten dau:

"Ziñismen neure begija zanian  
goiz oneik euken argi biguna!  
Baña bein barna lañotu yatan  
eta inguruban dodan illuna."

Orain "latxin ta larrak" utsik maite ditu, eta sakone-  
netik ots dagi:

"Barne ontan nok senti zeinkian  
samin ta poza azan begija!" (*Ziñiste bakuarena*).

Kanpoa "Jainkoz" betea: baiña benetan Jainkoa ez  
dan Jainkoa. Zer da "samin ta poza" dan begi ori? Jaun-  
goikoaren begia olerkariari adi? Ala fedearen begia, barne  
ta kanpo Jainkoz beterik ikusteko? Zuzenean bigarren au  
da esanaia, leenago be "begija" agertzen da ziñismena lez  
ta. Ez dot uste Lauaxeta'k olerki au burutzean "ziñiste  
bakoaren barrua iruditu bakarrik egiten dauanik, berak  
ezetariko parterik artu barik. "Ziñiste bakua" neurri baten  
beragan be baegoan, leen esan dogun billaketa orren  
eiñean. Jakiña, azkeneraiñoko eza ez danez, kontzientzi  
orizontea artzen dauan eza ez danez, olerkaria ez da ziñes-  
te bakoia, baiña bere izatean momentu edo mailla batzue-  
tan agertzen da odei illun ori. Orregaitik urreratu daitekio  
olerkaria benetan ziñistebakoari.

Lauaxeta'k Jainko bizikuntza zuzentasunagaz alkar-  
tzen dau, leen aipatzeko erea izan dogun lez. Istoriaren  
txarra eta injustizia zear, salbatzaille dan Jaungoikoagan  
ziñesten dau, eta orregaitik itxaropenean amaitzen dira  
orreri buruzko olerkiak. Baiña Jainko au gizonak egiten  
dauan injustiziaren epaille da: "Menperatuak izan diranak  
deika daukodaz" (*Garbaia. Urtzfren asarrea*). Bere erle-  
giñoa, esan gura dot emen, ez da iñondik be indiferentea  
zuzentasun-ezaren aurrean.

## 50n. URTEA

Jainko bizikuntza itxaropenagaz lotuta dago, eta itxaropena barruazkapenaren bearrizanaz. "Samiña" "atsedenagaz", "bakeagaz", "azkatasunagaz", alkartuta erabili izan dau. "Sasi-pean", "samiñaren katiar lotuta" dagoala autortu dausku (*Ludi ameskorra*). "Azkespena" eskatzen dautso "Miren'i" (*MirerCi otoy*).

"Begijok gorantz daroyez goiko disdira lagunak, neure bijotza osterakatigu daukost illunak.

Jaun orrek, kendu zaliok, edo eratu eguak!" (*Gorantza*).

# LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerTendako liburuak salgai dira «EUSKERA-ZALEAK» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º  
TeleTono 423 53 22  
B I L B A O - 1

---

Los Hbros al lado indicado» pueden adquirirlos en las oficinas de «EUSKERAZALEAK».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º  
TdeTono 423 53 22  
B I L B A O - 1

Nora Zoaz . . . . .	.600 laurleko
Giza Soiña . . . . .	600 »
Iniciación al Euskera . . . . .	600 »
Irakurgai errezpolti- takl. . . . .	.100 »
(Zenbat Urte)	
Irakurgai errezpolti- tak.II . . . . .	200 »
(David Copperfield)	
Aurtxoia II . . . . .	.100 »
Eginkizunak I. . . . .	.100 »
Eginkizunak II . . . . .	.100 »
Eginkizunak III . . . . .	.100 »
Euskal· Irakasbide laburra . . . . .	.600 »
(Gramatika X. Peña)	
Diccionario Ikas_____	700 »
Ipuiñak . . . . .	.700 »
Ipuiñak . . . . .	.800 »



### 3. Giza-irudia

Lauaxeta'ren olerkietatik urtetan dauan giza irudia olakoa izan leiteke: maitasunaren eta gaztetasunaren ederra sentidu dau; aberriaren aintzak arrotzen dautso gogoa, bera eta aberkideak etorkizun barri zabalera zuzenduz. Zuzentasunaren sentipen sakona dauka. Kanpoko eta barruko azkatasun bearra asmatzen dau. Izadiaren eta giza-arteko ertuemon ederrak poztuten dabe. Baiña ederra, eta bizitza osoa, zoritxarrak, aldiak, eriotzak zemaitua da eta azkenez ondatzekoa da. Biotzberatasunez urreratzen jake samiñak jotako bizitzai. Guzti au Jaungoikoaren fede itxaropentsu et maitasun personalaren barruan bizi dau; bizi be giza eran, ez odei barik, aalegin, jausialdi billaketa era bere buru-emote leialean. Eguneroko bizitzako atsegin zeak ditu. Onetan, izakeraz sakona eta arduratsua izan arren, irudi eta ele-eder jokoak egitea atsegin jako, esakuna urtenak jostari jalgiz.

Lauaxeta'k ez eban benetako bere barruko emoi eldua izteko erarik izan. Olako eritziak arriskutsuak dira, subjetoak izan bear dabe eta. *Arrats-beran*, forma eta tonu aldetik, ain fin eta trebe eta moderno, ez zan benetan Lauaxeta'ren bidea. Bai, poema orrek bereak dira, bere sensibilitateak, asimilasiño-erretzasunak, bere malgutasunak eta zentzun fiñak taiutuak. Baiña, ain zuzen be, bereak geien baten (ez danak, eta ez guztiz) literatura joko kutsuaz. "Pirtxilleriak", diño berak. Ez dogu or egillearen apaltasuna bakarrik ikusi bear, bere benetako asmua eta eritzia baiño. Jakiña dotoreak eta politak dirana, eta batzuetan ederrak. Nik neuk literatura joko elegantea asmatzen dotor. Eta aipatutako "amaneramiento", erakeria, *Bide barrijak* liburuan baiño geiago. Liburu au oindiño direktoegia da, garbitu, estutu, esentziaratu bearrekoa. Zuzenkeri orrek prosaiko biurtzen dau batzuetan olerkia; beste batzuetan sakabanatu egiten dau eta poesi indarra galdu. Topikoak be ikusten dira. Baiña zintzoa da, zindoa. Biotzondoko eta pentsakizun eta indarrez sorturikoa da askotan. *Arrats-beran* askoz landuagoa dogu, izkeran, barru-estruktura estutasunean, olermenaren esentzia biltzean. Baiña ez dago or Lauaxeta'ren azken biotza. Or agertzen diran artzaiñak eta burtzaiñak, esate baterako, ez dira benetan Lauaxeta'ren biotzean bizi ziranak. Literatura irudiak dira, errealdade eta bizi gixikoak. Ez dot onegaz Lauaxeta ezelan be gitxiesten. Gure olerkaririk aundienetarikotzat daukat eta konpokoan aldean ez txikiago, naiz ta bere erdal itzulpenak euskerazkoaren sobriedadea

eta estutasuna sarritan galdu. Literatura jokoan bertan be, erreze bereganatu ditun baliapide orren barruan be, ia beti dago pentsakizun esanaittua. Nire oarkizunak au esan gura dabe; itzi dauskuzan olerkietan eurak baiño geiago diran *indarra* eta *gizatasun* apartekoa asmatzen ditugula, eta bere irudimen eta beste trebetasun guztiakaz, ez dabela guztiz gorputzeko erarik izan.

Konparatu daiguzan, labur, giza-irudiaz esandakoa eta bere kartzelako olerkiak. Kartzelako olerkietan, bere barrua benaz ustuteko momentuan, literatura joko politik aaztu egiten dira. Jakiña, eriotz ordua ezin leiteke izan giza-lorpen guztien neurria: ordu bat dago ilteko, eta ordu bat pentsateko, eta ordu bat ederra sortzeko. Beraz, barriro, es dodaz ezestu gura beste literatura era guztiak, gixiango Lauaxeta'renak. Baiña egitez Lauaxeta'k egoera orretan olerkiak sortzen ditu, eta olerkiok euren egikieran be beste jatortasun, egi, eta indar bat erakusten dabe.

Aberria eta erlegiño bizikuntza dira azaltzen diran ia gai guztiak. Izadi-ingurua ez da guztiz aaztuten, baiña oso bigarren maillakoa da, berezko danez (Jata mendia, goiz ederra, txindorraren txintak). Aberria eta kristau fedea alkartu egiten ditu (*Agur, Euzkadi*). *Azken oyua* olerkian, gizuren eriotza aberriaren alde emoteko griña agertu ondoren, eta "gaste argi orreik" adoretu ta gero, "Josu'ren fedea besterik eztaukor", autortzen dau. Ederra jako lurra; "gastea" da oindiño eta gogor egiten jako igejs egitea (batera "ederrago yat eriotz onen itzala"), baiña izanbearra onartzen dau. Erderazko poema erligiosoetan damua azpimarratzen da (eta lotura eta katea); euskerazkoetan maitasuna eta fede ustetsua.

Olerki erligiosoen artean, *Eguna berantz doa* bearbada ederrena. Siple ta gardena. Danetarik indartsuena, beteena *Azken oyua*. Apur bat gogorra, Lauaxeta'ren tankerari ondo jagokona. Giza-balorak eta olerkariaren azken sentipena zaintsu adieraziak agertzen dira. Erderazkoetan, antzeko indarraz burutua da "Yo llevo". Emen be badira adierazpen-baliapideak, baiña olermen-gaiak agintzen dau guztiz: ez ditu idazten joko politik taiutzeko, edo beste batzuen erak eta irudiak euskeratzeko, bere olermen biotzondoa ustuteko baiño. Erderaz idatzi eban bere erretratuan, olan ikusten dau burua: bare eta, batera, ekatxa ta oleatu baltzak daukazala, samifia ta pentsakizunak; eta, olan be, adiskidetasunari beti zabalik (*El home bien barbado y bien amohinado*).

Emen aztertu dogun gizatasuna bereizgarritzat izateak ez ditu beste barik eder biurtzen olerkiak. Olerki ez diran eta izan gura ez daben beste idatzi-era askok euki leikee. Gizatasuna ain zuzen be olermen-eraz sentidu bear da olerki izateko. Lauaxeta'k "dardarea" irudia darabil olermen-izate ori adierazteko. Ikuste eta biotzondoak batera eratzen dabe, baiña olermena deritxogun ikus-

-sentipen ori, azken baten, norberak bizikuntza izanez bakarrik ulertu leike.

Gizatasunak, beraz, ez dau beste barik olerkia egiten. Baina gizatasuna deben olerkiak, besteak beste, ederra-goak, sakonagoak, iraunkorrakoak dira.

LUIS AROSTEGI  
1986. Maiatza

# ZER

## ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIAK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**

EL'SKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

# EUSKERA ABERASTU

## BURU

"Buru" izen onen bidez, zenbat gauza esan daitekezan euskeraz! Euskaldunok "konkretotik" "abstraktora" errez igoten gara.

Buru = cabeza.

Buru = "konkreto" cabeza. "Abstrakto" memoria, idea, concepto...

Burutu = alcanzar, completar, ejecutar...

Bururatu = traer a la memoria, recordar.

Burutaratu = sugerir, inspirar.

Burutandu = ocurrirsele a uno, venir a las mentes.

Buruz ikasi = aprender de memoria.

Buruz esan = recitar de memoria.

Burutan artu = tomarlo en consideracion.

Burutan euki = tenerlo en cuenta.

Burutik joan, burutik itzi = olvidar.

Buruan sartu = persuadir.

Burura etorri = ocurrirsele algo.

Buruan erabili = reflexionar, revolver en la memoria.

Buruak emon = prejuzgar.

Burura ekarri = traerlo a la memoria.

Burua erakutsi = fanfarronear.

Burua goratu = presumir.

Burua ostu, burua ezkutatu = ocultarse, ser humilde.

Burua il = suicidarse.

Burua moztu, ebagi = degollar.

Nire buru izan, zure buru izan = ser libre, independiente.

Burujabe izan = ser dueño de su destino.

Buruz jantzia izan = tener cultura.

Buru oneko mutila da = ...es inteligente...

Buru argiko mutila da = ...es clarividente...

Norbere burua ezagutu = conocerse a si mismo, hacer autocrítica.

Zu ez zagoz burutik ondo = no estas en su sano juicio.

Gizon ori burutik egin dago = ...se ha vuelto loco...

Buruz buru bere arerioaz aurkitu da = ...frente a frente...

Zuri buruz erabagi au artu dogu = ...acerca de ti...

Batasunari buruz berba egin dogu = ...acerca de...

Andoni lantegi orren buru da = ...es el jefe...

Burua bi belarrien artean ezarri = reprenderle asperamente.

Buruz belarri lan egin = trabajar intensamente.

Gu txapelgiñan asi ezkerok, umeak buru barik jaio = zori txarra adierazteko.

## ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**